

BIZKAITARRAI- BIZKAIERAZ*

www.euskerazaleak.biz
www.euskerazaintza.org

352n. zenbakia

2009 Iraila

2009



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

LAGUNTZAILLE

Euskalerrian euskeraz

E U S K E R A Z A L E A K

2009-2010 IKASTURTEA

BIZKAIERA 42. IKASTAROA IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN EDO ASTEARTE ETA
EGUENETAN

Orduak: Goiz, arratsalde eta gabetan

Ordaña: 140 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2 - urrutizkiña 94 423 53 22 - Bilbao

Asierea: Urrillaren 13'an

42.º Curso de Euskera Bizkaino 3 niveles y conversación

Días: Lunes, Miércoles y viernes, o martes y jueves

Horas: Mañana, tarde y noche

Curso completo: 140 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2 - Teléfono 94 423 53 22 - Bilbao

Comienzo: 13 de octubre

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitabost euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

2095 0000 74 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 25 €.

Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

Bakea, Erlijioa eta Nortasuna Gure Euskalerrian

Sarrera:

Antziñako “zer” aldizkari baten ale bat irakurten egon nintzala, kristau ekanduzko arloan goiria karmeldarrak (g.B.), Euskal gizartearentzat idatzitako lan bat agertu jatan “bakea”, eta jakin-gurean, arduratu nintzan ia zer esaten eban gure zornotza’ko karmeldar- lekaide aipagarri onek (i).



Antziñako “Zer” aldizkari baten ale bat irakurten egon nintzala, kristau ekanduzko arloan goiria karmeldarrak (G.B.), Euskal gizartearentzat idatzitako lan bat agertu jatan “bakea”, eta jakin-gurean, arduratu nintzan ia zer esaten eban gure Zornotza’ko karmeldar- lekaide aipagarri onek¹.

Bakea:

-Agindu au itxi eutsen Jesus’ek bere apostolui: «bake ereille izan zaiteze».

-Agindu ederra benetan. Guztiok gura dogu bakea, baiña askok ez dauke bakerik.

-Bakeak eragozpen bi daukaz XII’garren Pio aita santua’ren iritxiz: “guzurra ta aierkundera²”.

-Zintzo jokatu bear da. Bakeak zintzotasuna eskatzen dau. Bakea gura ba dogu, zintzoak izan bear gara; zintzoak gure buruagaz eta zintzoak bestee-kaz. Eta zintzoak batez be Jaungoikoa’gaz.

-Jaungoikoa atzipetu³ daikegula uste dogu.... Alperrik..., Geure burua atzipetuten dogu, ez jaungoikoa.

Gizonak zoriuntsu bizi gura ba’dau, bear-bearrezkoa da bakea... parkatu egizu ta bakea izango dozu barruan eta bakea gizonakaz.

1.— “txanton” esaten eutsen.

2.— aierkundera = inclinaciòn, sospecha, odio, adversiòn.

3.— atzipetu = estafar, timar, engañar.

Gure euskalerrian kristau erlijioa, eta parkamena:

Franko'ren guda ostetik, gure euskalerrri maite onetan⁴, beti entzun dodaz nik zuzentasun aundiko berba eder orreik, nire baitan⁵ ondo oiñarrituta dagozenak.

Baiña emen sekula ez genduen entzuten nortasuna'ren berbea izaten zan, edo nortasunak, zor-eskubide arloetan daukan bardiñezko-ardura erdizka baizik. Beti, txarkeria edo muturrekoa⁶ egin edo emoten euskunai, parkamena ta aurpegiaren beste aldea ipinteko aolkuagaz.

Eta orduko euskal gazteak izan giñen baitan⁷, zearkatutako bide⁸, edo zentzutasunaren arloan zuzentasun-bako noraezean aurkezten gintzazan alde ortatik

Gure lekaide-abadeak bildurra eukiko eben? Nortasunaren irakaskintzazko azturan sartuta askatasuna'ren berbea agertzen zala, eta gauza guzti orreik espetxe edo ta eriotzagaz debekatuta egon ziralako.

Ondo ulertzen dot, gure apaiz-lekaide berezko-legea'ren aberkideak ziranak, zuurtasun aundiagaz jokatu bear izan ebela, eta gazteak bide orretatik, aurretiko ezaupide orren ezean geratzen gintzazan gure buruetan osozko arrazoibide baten egokituta geratzeko.

Gure etxean⁹ eguneroko arratsaldeetan agurtza esaten gendun¹⁰, baiña eneban ulertzen nik zazpi urte euki nebazanetik aurrera, zergaitik amak agurtza gazteleraz asi zan esaten.

A-ta guzti, etxeko otoizketak, ez eben euki zer ikusirik, kanpoan itzurazkoak egiten ziranarekin, etxean Jainkoa'gaz berba egiten gendualako.

Errian, egi-zale eta egizko-ulermenaren billa ibili ba-ziñen, laster esangotsuen: gorri, komunista edo matxin-zaletasunezko ez-izenak, eta santu-plan-tak egiten ebazan jende, fazistak, udalekoak eta guardi-zibillekaitik atz-erakusleagaz beti aipatuta, bai soldau-serbitzura joan bear'giñanean be, guardia-zibillekaitik gomendiozko-gutun¹¹ ederragaz salatuta.

Gau-gurtzakoa¹² be izan nintzan, eta an ez zan egon nortasuna'ren aldeko ezeren zentzurik, ez ebelako kontuan artzen, gabeko iru-txandan, bakotza ordu-bateko denboran, tutik-be jakin ez gendun latinez irakurten Jainkoa'ri otoitzko itzura baten ibiltzen giñelako. Zer esaten geuntzen guk Jainkoa'ri ?

Lenago, urte askotan meza-laguntzaille izan, eta J.O.C.'Ekoa¹³ be izanda, eneban ulertzen itzura aldeko otoitz ori, eta taldetik kanporatzen noiela esan neutsenean, burukideen artean txindurri-abi'bat zapaldu ba'neban antza artu eban.

Antzekoa sortu zan, nik enebalako ulertzen pilar'e-ko amabirjiñak zergaitik euki bear eben espaina'ko ikurri bi alboetan eta gerrian guda-nagusia-gerrikoa, gaba baten kendu eta erre egin nebazanean, udal-agintari, guardia-zibillak eta frankista aldeko'en artean, urduritasun aundia sortu zalako.

Apur-apurka, latinen izkutuzko sinisgai bide ortatik argira atara euskuna, meza-santuak, gure jaio-tzezko-euskerean emoten asi ziranen izan za¹⁴, gure barneetan, ararte izkutu edo illuntasunezko sinesmenean egiten genduzan otoitz-itxurak, aukera ederrena emon euskulako, gure otoitzak ulermenaren irudimenezko-argitan kokatzeko gai izan gindezan.

Alako zalantzan eta erantzun-bako itaun-bidetik iraun eban nire gazte-bizi denborak, aita santi onaindiagaz aurkitu eta alkartu arte. Ak, itaun bakotzeko, bere ikas-gai'en liburua emoten eus-talako.

Nire askatasunezko jakin-miñak bide sakon orretatik, erromara eroan eustan, esaereak esaten dauan lez: "mundu'ko jakin-bide guztiak erromara bideratzen daben antzera".

Eta edestia al-neban alegin guztiagaz arakatuta konturatu: "Nizea'n 325'eko urtean eleiz-bat-tzar-nagusia I Konstantino eta I san silbestre aita santuagaitik batuta, kristautasuna, bertan katoliko-alderdikidetuta, politikan sartu ebela.

Norkerizko asmakuntza ori ez zan izan ustegabekerizko¹⁵ ondorio bat bakarrik.

4.-baita= conciencia. 5.- 1.940' An jaioa naz ni. 6.- muturrekoa = ofensa.

7.-baitan = conciencia. 8.- zearkatutako bide = ala deriva, contradicción, encrucijada. 9.- orduko etxeetan, berbetan oi uundiz ibili ezker, dan guztia beste solairuetatik entzuten zan. 10.- rezar el rosario. 11.- gomendiozko-gutun = carta de recomendación. 12.- lenengoetan ez giñan konturatuten, arek eta gure gau-gurtzako oial'etan espaina'ko ikurriña ipintea galazo euskuen arte, orduan oartu giñelako "adoración nocturna católico-española" zala, artean euki genduzan jakitunen esanetatik. 13.- gu, espaina'ko gazteekin berezkatzeko, kristau langille gazteak giñela esaten gendun.

14.- gaur oster a be izkutuzko latineria eroan gure dabena antza. 15.- ustegabekerizko = casualidad.

Katolikotasunezko ziñeskintzaren lojika orren barruan sartu eta indarrean kokatuta, mundu guztiko gizarteak, erromatar-kaizar legean arau-dipenduta eta aita-santu sakratu bakar baten agintzapean batzangotuta egon gindezan billa asi ziralako.

Euren sasi-jainkotasunean, ez eben uste, orduan jaio'azo ta iraspendu¹⁶ ebela munduan dagoan fazizmoa'ren erpe nagusia.

Ortik aurrera, mundu onen berezko erri ta gizarte guztientzat, alderdikidetasunezko iraspen ori, ez dalako izan, egi ta demokraziaren izenean ostetik egin, eta egiten diran alderdikierizko banaketaren iturburua¹⁷ baiño besterik ez.

Nai ekanduzko erlijioan, politikan, eta merkataritzaren arloetan, ekandu-bako bizi-ekintza baten ibiltzen ziranai, edo anditasunezko ametsean ibili ziranentzat, maltzurtasunezko ate guztiak zabaltu ziralako bestien gaiñetik nagusitu al-izan ebenentzat.

Norkerizko iraspen orren ondorioz, batzangotasunaren¹⁸ elburu orri-begira, edestian negargarritzko naaslari biurtu diralako, danok, eritzi orren kontrolpean euki gurean.

Eta goitik-berako batzangotasunaren mozkin-kontrolpeko agindu-gure orreik izan dira sorburu, gaur mundu onek zor-eskubidezko arloetan emoten dauan negargarritzko ezberdin irudia, batzuen aberastasunak, geien zori-gaiztoko txirotasunean ezarri dabezelako.

Bestela begitu ze ezberdintasun sortzen dan munduak daukazan bost lurralde-aundietan (Afrika'n batez-be)

Argi ikusten da, "nacional-catolicismo-facista onek", ez dauela jakin gura ezer izadi onek Jainkoa'ren gandik ipinita daukazan legea'kaz eta gitxiago, berez jaungoikoa'ren legea'n sortu ziran izkuntz eta erriekin.

Eta arrigarriena da: "Jainkoa'ren izenean, ez daukiela ezeren ardurazko-lotsa eta gitxiago damu, Jainkoa'ren legea'ri begira sortu ziran nortasunezko izkuntz ta erri-iltzailleak izateagaz.

Jakin leike ze-Jainkoa'ri buruz dabizela itzegiten? Ala ixilean, norkeri bidetik aurkitzen dabiltzan sasi-jauntasun orren atzean ote dabiz?. Aita Santua adibidez.

Gure euskalerrian, izatezko ekanduan daukagun askatasunezko-demokrazia'ri begira, katolikotasun ori oso zitala agertzen jaku, gauza askoren artean. Adibidez: "gaurko edozein izparrangi irakurrita, Franko'ren denboran antzera, gure gotzaintzarako euskal-usairik dauken apaizik ez dabelako aukeratu gura.

Giza-bide edo giza-lege ori da berezko erri ta gizarteakaz ekanduzko lotsaren arduran zaindu edo jamotea?

Dan guzti ori ikusten dogunean, konturatuten gara, gure gaztetasunean zergaitik sortzen ziran goian esaneko gauza guzti orreik eta batez-be, gure apaiz-lekaide aberkideak, egiten dabiltzan lan miresgarriagaz.

Baiña, alderantziz, orren asmakuntzazko sorburuari begituta: erromatar aberkide-katoliko orren erabagia artu zanean, fazizmo-iraspendua'ren ainbesteko utsegitea edo anka-sartzea euki eben, orduko eta gaurko Grezia'k batu eta osotutako berezko-jakiturei-demokratikoakaz batera, zorro baten ongaizkatuta sartu ebelako.

Mundu onetan ortik aurrera, erromatar sasi-asmakizun ori eta bereztasunaren-legea'ri begira ikasi doguzenak iñondik-iñora ezin diralako osotasun baten elkar-lotu, or gabiltz ia bi-milla urtean odol-jarioz, eten-bako burruka baten.

Eta eskerrak, munduko agintariak eten-bako burruka orretan, orain, bildurra artu dabela borrokarako dagozan atomozko-leer gailluai! Bestela mundu-zorro onek eztanda egingo leukelako.

Orregaitik, munduko bigarren guda ostetik eta gaur mundu'aren gizarterako, merkataritzazko askatasunean¹⁹ eratuta dagozan erromatar-lege-baldintzak, mundu gizarteak lanik-ezean²⁰ itxita, edo

Porrot²¹ egin dabelako, eta aurrera joan ezkerro, zoritarreko aldikadetan porrot egiten joango garela ikusita, gure arrazoizko estaibadak itzarmen bidez, eta erri ta giza eskubideari begira konpondu bear direla, asi dira esaten.

16.— iraspendu = fundar, constitucionalizar. 17.— iturburua = causa. 18.— batzangotasuna = globalizaciòn.

19.— merkataritzazko askatasunean = libre mercado. 20.— lanik-ezean = crisis.

21.— porrot = quiebra.

Gaurko laterriak, itzarmeneko orren-bidetik jokatuta, badakie, erri ta gizartearen eskubideetan oiñarritu bear garela. Eta orregaitik espain esku-bi'tar faziztak eta euren aurka jaio ziran sozialistak, biak menperatzailleak biurtuta alkartu dira²², euren ametsezko katolikota- sun espain aberri-ori, bere berezko egian kokatu bear dalako.

Orregaitik asi dira presaka, euskalerria'ri, ia daukan nortasuna kentzea lortzen ba'dabe, eurakaz bat egiteko espaina'ren kaizargotzan (españa-imperial).

Adibidez, atzo (2.009'An lorailla'ren 5'ean), eusko-biltzarrean egin daben antzera "legea'k euren aldera eratuta, ezeren lotsa'barik menperatzaille orreik (PP eta PSOE'K), euskal-agintaritzagaz jabetu dira", leen:

- Euskadi'ren diru-sakelean eskua sartzeko (0'9 pib'en bakarrik zorkatuta aurkitu dabelako).

Euskadi, zorrik-gabe egonda, aukera daukielako euren fazizta-naikerien alde jokatuta, 3.000.000.000'Ko "zorre- tan sartzeko".

- Euskal-telebista'n eginda daukaguzan antolakuntzak, erria argibide onenean aukeratuta egon daiten: "espainar-aldatzeko".

- Eta, Euskadi'k, euskerea beren nortasunera berrezkuratzeko daukan antolakuntza guztiak, "zirriborrotzeko".

Besterik ? Ez eben aurkeztu beste antolakuntzazko egitaraurik.

Argi esanda, aldarrikatu baiño ez egin eben, euren alegin guztiak: "euskaldunak daukagun nortasunetik kanporatu egin bear dabela, espainar ta munduko erritar²³ biurtzeko".

Orain, euskal-porrot aldi-au ikusita, garrantzizko iru-itaun agertzen jaku aurrean, eta gure etxeko ezkerraldetik dabizen anai-maite'ari egin bear dautzaguna ain zuzen: 1) etsaia'ri zergaitik aukeratu jako, euren menperatzaille-maltzurta- sunezko joko-txeberan jausita, euskal-etxeko larritasunari jaramon egin-gabe, bide otatik sartu daitezcan, eta ainbeste kostat jakun guztia zirriborrotu daiten ?.

2) Maltzurtasunezko-menperatzaille-jokoan dabilenak... uste dozue egiz jokatzen dabilzela ?.

Euren maltzurtasunezko-egi lez bai! Baiña.... Jainkoak bizitz-oneri edo berezkotasun oneri emondako danon esku-bardintasunaren billa ?

3) Bizitz onetan, sort-arazi egiten dan guztian eta giza-lege-bidez berezkotasunean jaio diran (euskal-erria-lez) nortasunezko izatasunetan, euren bizi-bideko ekintzan ustekabe edo beartuta aurka egiteagaitik agertzen diran zauriak, osasunera biurtzeko.... Lasterrezko bidetik ibiltea balio daukala ?.

Bereztutako mundu onetan, zentzunezko egi-gauzak ezartzeko, osotuten dabezan arrazoiak, zurtasunezko lanean bakotza bere lekuetan ondo kokatuta ezarri bear dira, zentzunezko-nortasun ederrenean agertu gura ba-dogu gure arbasoak egin eben antzera.

Ez dau balio, ez! Lasterka eta norkerizko-alderdi-kerietan ibiltea, bakotza, gura ez dogun zortzarrezko alderdi auetatik euskalerriaren elburuari begitu, eta batera, ikuspegi orregaz, ardura aundiko lan egitea. (Gaiñera jakin bear dogu, atzeko akatzak konpondu azik, aurrerako bideak ezin doguzela konpondu, eurak diralako azturazko arrazoi bidean aurrerakuntzazko bideak argitzen dauzkuezanak).

Nortasuna:

Jainkoa'k, gure arima'k ikertzailetasunezko gai-mundu onetara bialtzen gaitunean, bera'k bereztutako gai-lege artera bialtzen gaitu, bear dogun tresneriekin.

Ez dausku bialtzen edozein gai-gauza bat izateko, bearrezko gauzaren ikertzailetasunean nor izateko baizik.

Gure arima'k, daukan tresneri aundiena, arrazoi-tasuna da, eta bereiztasun orrek bakarrik aituazo egiten dausku, gai-mundu au Jainkoa'ren gauza dala.

Eta gure bizi-aldian bere jokabidearen oiñarria, egitarauaren²⁴ arrazoiak erakutsi eta bideratu egiten dauskun lez, gizarte-arteko eta gauzakaz uko ezin-gabe ardura aundiz egin bear doguzanak, zentzunezko antolatzaileak²⁵ izatera bideratzen gaitu.

22.— menperatzailleak biurtuta alkartu dira = razón de estado. 23.— espainar ta munduko-erritar = para convertirlos en ciudadanos de España y del mundo.

24.— egitarauaren = método, regla, orden de acción. 25.— antolatzaileak = gestores.

Jaioten garan guztiak arima'ren arrazoitasunezko-baita bardiñean jaioten gara, eta orregaitik danok daukaguz zor-eskubide bardiñak gai-mundu onetan.

Gizartearen zabaltasunezko bizi-antolaketako-ekintzan, arimea da bere baita'n, antolatzaillatasezko nortasu- naren sena emoten dauskuna, eta iñork ez dauka eskubiderik bestea menperatzeko, ez mende orreik lortzeko asmakizunezko legerik egi-lez atara ta ezartzeko, izadi onek daukazan lege'tik kanpo.

Nortasunaren arloa, bakoiztasunetik izanda zabal-tzen da erri- mailla artu arte.

Mailla ori ez da lortzen edozein eratarata, leen, senditasunetik auzotu ta babes-billaren zabaltasunean, leiñotzea dalako berezko elburua.

Ekintzazko elburu orren mamintasuna, jakintzaren aztura-bidean jarraituta, oituratu egiten diran jakiñakaz artzen dauan zentzunezko gorputza da.


Eta berezko-gorputz arlo-orreik osotzeko daukazan zati edo atal asko dira daukazenak, adibidez.

Zeru-lurrari begira: bear gendun tresneria janaria lortzeko eta zeru-lurraren ekaitzetik babesteko.

Osasunari begira: zeru-lurraren janari-gelak eskitzen dauskuzan mozkiñetik, zeintzuk ziran ongilleak eta pozoitsuak ezberdiñeko aukeratan, gorputzaren osasunerako. Eta gizaren ugaritasunari begira, gizartearen joka-bidea.

Jainkoa'ri begira: bildurra, beti bere-lege'ari begira egiten ebazan gauzak, adoxtasunean egoten ba-ziran ala ez. Sinismen orreik ekandu-lez oituratuta (relijion).

Izkuntzari begira: euren ulermenerako, beste mintzotasunezko abots-tresneri bat lortu bear izan eben, eta abotsa'ri irudizko aditz-erak asi bear izan eben emoten, mintzoaren oguzpenera²⁶ eldu arte.



26.— oguzpenera = pronunciación articulada.

Euskal-izkuntz ederra sortu eben gure arbasoak, bizitz oneri arlo guzti orrekin jakintzaren-azturazko bidean emon eutsoen argitasunezko adierazte²⁷ ederrerranean euskeratu egin ebalako, eta bertatik artu gendun euskal-nortasuna.

Emen mako-tarte bat egin bear dot, izkuntza'k gure arremen arteko tresneri uts-bat bakarrik dirala lotsa-barik esaten dabenai aurrera urteteko.

Eta lenengo gomendio bat: euskaldun guztiak, jakintsuaren gandik asi-ta, irakurri bear gendula Zubiaga ta Legarreta' tar Felix'ek idatzita daukazan "origen y desarrollo del lenguaje" (según el vascuence), "euskara hermeneutika" eta "origen del vascuence" liburuak.

Felix jakintsuak, gauza askoren artean esaten dauana: "izkin-bateraño aztertu egiten dauan mintzoera edo izkuntza batek, jatorriz edo sortzezko izkuntza dala".

"Izkin bateraiño eltzea, eredu nagusiren²⁸ ozenezko²⁹ iturria argitzea dalako berbearen mintzo edo abots sorkuntzan".

Eta euskerea, al dalako izkin bakarreraño eldu, orain ezin da esan alderatzailleak³⁰ esaten daben antzera, "euskerea jatorriz, ezagutzen ez dan mintzoera bat dala".

Mintzoeraren oguzpeneko³¹ jaiokeran, bera dalako berezko aitortzaille.

Orregaitik: "mintzoeraren jatorrizko itz-bakar bidetik eta onen eredu-nagusiko leen analoji-arauz, beren jaiokera argitzen dauan izkuntz-bakarra".

Mundu'ko jakintsuak beste aldetik esaten dabena da: "euskerea dala homo-sapiens edo kromañoi'en asierako izkuntz bakarra".

Beste alde batetik begituta, gure aita-sabino'k esaten ebana: "euskaldunak euskeraz berba egiten ebenean, euren izatasunezko nortasun ederrenean agertzen zirala". Baiña asko galtzen ebala gaztelera mintzotzen ebenean".

Orren ondore, euskalerriaren etsai aundienak (mayor oreja adibidez) be ori esaten dabe: "euskaldunak guzurrrik ez dabela esaten".

Orregaitik ez da euskerea edozelako tresnei uts-bat. Euskal-giza mundu oneri emon eutson adie-

razle bidetik, maitasun eta zuzentasunezko zentzun ederrenean eginda dagoelako.

Tresneri uts'ekoak, edo zentzunezko-nortasuna galdu daben izkuntzak, izkuntz-naspildutasunetik sortu ziran izkuntzak dira, au da: asieran, Asia'n menperatzaille-tasunezko bidetik sortu ziran izkuntzak (indoeuropeoak), eta geroago erromatar indarrezko-alegiñetik sortu ziran latin-kumeak, gaztelera, fratzes eta abar.

Euskalerriari begira:



Konturatu bear gara, gure arbasoak mundu oneri emon eutsen adierazpen ondore, nortasunezko maillan lortu eben sinismena zelakoa izan bear izan, eta zelango indarra euki bear eben, menperatzeko egin daben alegiñakaz gaur arte gu bizi gaitezana.

Euskaldunai ez dautso iñork burua makurtuazo, eta gitxiago beren zentzunezko nortasunetik atara, naita euskereak, homo-sapiens sortu zanetik, mundu guztian lortu eben zabalkuntzean, gaur daukaguzan zazpi-lurralde auetan murritzuta geratu.

Ez bakarrik murritzuta, gure euskal-nortasunezko gorputza sakon-zaurituta be badagoelako.

27.— adierazte = explicaciòn, interpretaciòn.

28.— eredu-nagusiren = arquetipos. 29.— ozenezko = sonoro. 30.— alderetzailleak = comparatistas.

31.— oguzpeneko = pronunciaciòn.

Gaurko euskaldunak orregaitik, ez gara ibili bear menperatzaillak edesti guztian ibili daben guzurr, izkillu, amarrukeri, eriotzezko indarkeria, eta katoliko-fazistaren sare-arteakaz jolasten, gure arrazotasunaren ardura benetan, zentzun aundiko jolasketa izan bear dalako.

Ez dogu itzi bear, mundu zabalean zentzun aundibidezko ekintzan lortu zan askatasunezko-demokrazia galdu daiten, euskaldunak! Jendekuntza³² orren aitorlari³³ garalako.

Eta nai-ta alderdikidetasunezko txeberan edo sare-artean guregabe arrapatuta egon arren, bakezko-

elburu bategaz jokatu, gure euskal-nortasunaren zauriak gaiztotu orduko, osatu daiguzan.

Euskerea da, euskaldunak nortasunezko baitan daukaguzan zauriak osatu leiken tresneri nagusia, gure arbasoak bere sorraldian, Jainkoa'ri begira bizitzari emon eutsoen adierazpen ederra³⁴ azalpeneko-abotsakaz³⁵ osotuta, euskerean irarri ebazalako euskal-izatasunaren jakintzazko-oitura ta ekandutako euskal-bizi guztia.

Atutxa' tar Paul

Zornotza'n 2.009' An orrilla'ren 6'an




32.— jendekuntza orren = civilizaciòn paleolítico-neolítica. 33.— aitorlari = testigos.

34.— adierazpena = explicaciòn. 35.— azalpeneko-abotsakaz = voces interpretativas.

Bermeoko Armarria

Azalpen grafikoa, Gaztelu aldean, Bermioko kaiako sarreran dagon Ate-mollegaz, egiten da..

Antziñatik agertzen da Bermio, merkataritza kai eraginkorrenetarikoa, ontzi-ornitarako garrantzitsuena ta Bizkai kostaldeko bizilagun geien eukena.





Irudia: Genaro Cobo

Bere armarrria 1.297 an Alkartearen agiriartean agertzen da, auzigaiak epaitzeko ta merkataritza indartzeko.

Ikurdi au 1.297n Bermeoko Konzejoko Procuradoreak eskuratu eben Catro-Urdialesko Batzarretan parte artu ta Frantziako Erregearen ordezkari egaz artu emonak eukiteko.

Idatzirik dago, Iruñako Comtos- Kanbaran arkitzen dala agiri orren jatorrizkoa, larrukizkoan, ta lotuta daukala zeradun Bermeoko zigilu andi bat.

Bermeok daukazan Armarrrietako baten, onako leyenda dotorea ikusten da: "Bizkaiko buru dan Bermeoren Zijilua da au" (HOC, EST SIGILLUM DE BERMEO CAPITALE VIZCAIE).

Onetiko idazkuna, ziur asko, Bilbok bere garrantzia lortu aurretik, egindakoa da.

Beste armarri baten auxe irakurri leike latiñez: **STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI.**

Udaletxeko balkoian agertzen zan estandarte zar batek auxe iñoian latiñezkoaren esan naia euskeraztuz: **BERMEO, LENDIK GARESTUNEZ APAINDUA ZAN.** (Erderaz: Bermeo, desde antiguo se coronó de gloria).

Udaletxea apainduten dauen armarriak, auxe diño: **BERMEOKO ARMARRIA ZARRENA TA GARRANTSI-TSUENA DA.**

Ikurdi onen esanaia axe dozu: Lau arraunlari eskiye ganean itsas- mamuzar bat arrapatu gurean. Goien dozu gizon baten burua ta luki bi. Agure baten buruaren berezitasuna 1.476n Fernando Katolikuak Bermeori emon eutson pribilegioari zor jako, **BIZKAIKO BURUTZAT** onartzen dabelako.

Agustin Arrien



Burdin bidean Jauregi bat Erregearen Itxas-Bustialdirako.

Irudi onetan ikusten
dozen Jauregitxua, India-
itxas basterreko Nagusi
barragari batek asmatu-
tako bitxikeria dala esan
leike. Ogeigarren mende-
aren asken aldean agertu
zan, Donostiako Kontxako
ondartzan, Alfonso
Erregearen gozamen eta
aisialdirako.





Zurez egindako Jauregia ondartza erditik, baporez-ko motorrak bultzata, abiatzen zan ondarra zegon lekutik itxas barruan sartu arte. Bere barruan joaten ziran Erregea ta lagunak, ikusmira zaleen begietatik ostonduta.




Argi azaltzen dauanez "Pruned" idazleak, onetarikoa baño-txabolak garai artako moralismoak sortu ei ebazan, etziralako onartzen agiriko baño-jantzi ta bustialdiak.

Balneario edo Bañu-etxeakaz leia jatorrean ibilliz, "olatu-bañuak" izeneko jauregitxu mugikorrak ugaritu egin ziran, andrazko naiz gizonezko bañuzaleak zentzukiro sartu ta urtetako egokituta egozalako.




Donosti ta Santander'eko ondartza dotoreetan, ugaritu ziran laster asko, orretariko "Jauregi-etxolak", itxasoko ur gora- beraren arabera, atzera ta aurrera mugituz.



Siro Alkain, donostiarraren esanetan, mendearen asken aldian Kontxako ondartzan kokaturik egozan "jantzi-txabolak" 242 omen ziran.

Gañera ikusi daikezuen Alfonso XIII k. erabillitako "txabol erraldoia" be bai. Idazle orrek diñoanez, 1894 an eraiki ta 1911 raño iraun eban, arriz egindako etxea ondartzapean agertu arte.



Euskalerria´ren Egia:

VII zergaitik

latin-kumeaileentasuna

Pidal´ek emen, gaurko Espaiña´ren edestiko iritzia, betikoa izan balitz lez aitatzten dau. Eta eskubide arloetan ez dago maltzurrezko okerkuntza aundiagorik, arri-aro edo paleolitikotik etorkizunezko denboratara, Bereztasunaren zentzuzko Demokrazian lortu diran aurrerakuntzak, erromatar asmakuntzatik ona ekanduan eta izkuntzatan sortu dan naste-borraste edo korapillo onekin bat egiteagaz.

"A propósito debemos desde luego notar, respecto a España, que ni el mayor individualismo ibérico produjo mayor diversidad de lenguas, ni esta diversidad obró como determinante en las disgregaciones históricas que hayamos de recordar":

Pidal´ek bere Espaiña´ren elburutasunean ez dauana esaten edo jakin ez ba-eban, uts egiten dautsona: Erromatarren aurretik, Britania´tik Kadiz´eraíño eta Atlant-itsasotik Alemania´raiño Euskal jendekuntz batekoak zirala eta berba, nai-ta izkuntz-zabal batek, berez beartasuneko urruntasunaren bakandutasunak daukazan mintzadar esberdiñ-antzekotik ulermendu, arremanezko ordezkotzan, ekanduzko-oitura bardiñ batetik bizi zirala.

Geiago bear eben?. Ortik aurrera urbiltzen asi ba-giñan, giza´ren eskubideakaz gaur, zalantzarik gabe, beste edesti baten aurrean egongo giñan.

Erromatarren menperatzaille ta odolkerizko ekin-tza areitan, zelako izkuntzaren aurka sortu ziran izkelki-baragarri aiek, ez ziranak latin-kume egin berandu arte eta zer sortu zan IV´n. mendean Nizea´ko Eleiz-Batzar-Nagusitik aurrera.

Errez iruditu leike, orduko Euskal-leiñuen urruntasunagaitik eta erromatarrak lurralde bakar areitan, odol-jariozko ekintzaren borroka bidetik lortu ebezan mendeak, izkuntz bi bakarren artean izan zala eta euren artean ulermeneko bidean, galde-erantzunezko mintzadar edo berba´ren sorburua, Asturias´en "Bable", Burgos-Santander bitartean "Gaztelera", Nafarroa´ko Ebro´aren ur-bazterrean eta Aragoi´ko lparaldean "Napar-Aragoia" eta Kataluñan "Katalan´eraz", gogo edo oldozmen bardiñ batetik sortuta be, bardiñak izateko, leiñuak bata-besteengandik urrun egon zirala une areetan, oldozmenaren esabideko mintzo edo abots´ak, itxura edo irudi bardiñak euki dagiezan.

Ekintza orren bidez urten eben ainbeste latin-kume (Pidal´ek, Euskerea ez ba-dau emen aitatzten-be, bere buruan aurkaldi gogor bat dauka: "Latin-kume esberdiñak izan ba-ziran eta "afines" itzagaz mugatu, nondik agertzen jakien antz edo kidego-



tasun "afinidad" ori....., Euskerea eta Latiña´ren bitartetik ez ba-ziran sortu ?) bada-ezbadakoak. Ez zirala ezer izan, areik eta erromatar kaizertzak 325´ean katolikotasunezko "guzurra irakatsi-arte" (dogmatizar), gero menperatzailletasunezko alegiñean indartzen joan ziranak, berezkoak ezereztu gura ebazalako, gero ikusiko dogun-lez.

Ortik aurrera eta erromatarrek asmatutako "katolikotasunezko aberri-barri (facineroso nacional catolicismo) fazizta-izkillodun" orren bidez, berezko erri ta izkuntzak, ezereztuteko alegiñean dabiz, Mundu onetako gizarteak, eurak asmatutako kaizar ta erlijio bakar bateko batzangotasunean sasi-jainkotasunezko iritzian iraun dagigun, erri-gizarteak morroi-lez erabilita.

Ez da alegiñezko egokitasun-maltzur ori..., gaur Mundu guztian sortzen jakuna ?.

Mirarizko Euskalerrria bere senezko izkuntz ta sinismenean zirriborrotu-bako bakarra geratu jakie eta gaur-be or dabiz eskubi ta ezkertiarrek (Azkeneko oneik, euren izatasuna jakin edo zergaitik dan ulertu barik, eskomatarren jokua eginda. "Socios o socialistas ciudadanos del Mundo dicen ultimamente que somos: "¿ De què mundo pero.... si estan haciendo el juego a una globalización impuesta por el nacional-socialismo fascista contra el que ellos precisamente nacieron ?". Para que carezcamos de toda identidad y facilitar la condición del borreguismo ?) erri-gizarteak eta izkuntzak, Euskalerrria eta Euskerea lez ezereztu naian.



Begitu bestela zer agertu zan 2.008´an Jorrailla´ren 26´an DEIA aldizkarian: "Sabian què: "La revista de Rouko Varela ilustra con un anagrama de ETA un artículo sobre las "trabas" al castellano y a la religión en la enseñanza en EUSKADI ?".

Ez dira konturatzen....., oraiñarte berezko izkuntz ta errigizartearen aurka egin dabezan ezereztasunezko alegiñean naikoak dirala !!. Gaiñera....., JAINKOA´ren LEGE´zko diran giza-eskubideak 1.683 urtetako epean....., odol-jariozko ekintzan zapalduta ekarri ba-dabez ?.

Ez dira konturatuko.... JAINKOA´k ipinitako LEGEA´ren aurka ezin dala joan ?.

Badakigu 325'eko Nizea'ren Eleiz-Batzar-Nagusi'tik 1.453'ra katolikotasunezko siniskai eritzi gogor baten eroan ebala Europa'ren jaurkintzazko aolkularitza eta ortik aurrera agintasan osoan 1.789'an Frantzia'ko iraulketararte. Baiña gaur-be, eurak ez dabe eroaten aolkuaginte ori.... KRISTAU-LEZ mozorrotuta ?.

Europa'ko guda guztiak.... euki dabe Bereztasunezko zentzurik ?. Zer gertatuko da azter-lan bidez gauza guzti orreik ikertzen diranean ?. Ez daukie lotsarik !! eritzi orreik uts egin da gero....., geroko edestiaren idazleak ipini dauskuezan izen-ondorengoakin ?.

Pidal'ek, menperatzaille-katolikotasunezko sinismenean sakon sartuta egoalako (obnubilado), bere jakintza aundian, ez eban banatzen jakin, Mundu onetan zer diran JAINKOA'ren LEGEA'k eta ze legea'ri buruz, giza eta erri-gizartearen Berezko-Eskubideak dirala-ta jokatu bear dogun ekanduzko ordezkartizan. Mundu onetan, JAINKOA'ren LEGEA zer dan jakinda, DEABRUA'k bakarrik jokatu leikelako, beren sinismenaren aurka. Eta "bera, ez zan DEABRUA".

Pidal'ek, jakiñaren gaiñetik urrengo lerrotan esaten dau: "El reino de Navarra, desde su comienzo en el siglo X, usò promiscuamente dos lenguas habladas, el vasco y el dialecto navarro, afin al castellano, y como lengua escrita sòlo usò el latin y el dialecto romànico, pues el vasco no comenzò a escribirse algo sino en el siglo XVI".


Pidal'ek ez dauana esaten: Nafarroa'ko erregetza, Europa guztikoak lez, erromatar asmakizunean etorten zan batzangotasunezko eritzia Konstantino'k eleiztarrakaz batera, beste erabarri baten antolatuta, zabaldu eben "katolikotasunezko-aberri" sare orren barruan erorita (entrampados) geratu zirala, iñora iges egin ezinik.

Alde batetik: Siñezkintzaren (dogmatismo) sinismeneko naste, lausodura edo illuntasun (obnubilaciòn) orretatik gatx izan zalako urtetea, nor-bera ekanduz-kanpoko damuan geratzen zalako eta alderantziz, aurrera egin ezker eleiza'ren aldetik eskomikatuta geratzen ziralako. Orduko arau-agintariak (imperio), lege orrein sinismenak galtzen ebezan erregeai edo eta Nafar'tar errege'ari bezala Euskal-bereztasun askatasunezkoak ziralako, aurkakoak-lez artuta, beren ezar-lekuak aske izten eutsoezan euren

jokuan ibiltan ziran printze edo erregeai, onean nai guda bidez bere erregetzan ezarri daitezana. Eta olangoa izan zalako maltzurrezko joko ori, oso latx biurtzen zan sare orretatik urtetea.

Baiña, nai-ta denbora aiek olango illuntasunezkoak izan, Nafar erregeak tinko eutsi eutsoen euren nortasunezko izatasunari, sare orren barruan ainbat artegatasun ikusita.

Orduko Aita-Santuak ikusita, Nafarroa'ko erregeak euren nortasunaren zentzuzko senetik ezin ebazala atera, beren maltzurrezko txeberak-be ibiltan ebezan, adibidez: Legezko errege guztiari eskutitzetan idazten ba eutsoen "REX GARTIA DEI", Nafar erregeari "DUX GRATIA DEI" esanakaz zirikatuko eben eta abar.



Beste alde batetik begituta: VI'n Santxo Jakintsua'k.... zergaitik agertu zan beartuta EUSKAREA "LINGUA NABARRORUM" izen aundiakin izendatzeko...., aurkako ekiñalde aundi bateri aurrez-aurre urteteko izan ezik ?.

Eta VII'n Santxo indartsuari bardin: Bera Aita-Santua'ren esanari begiratzeagaitik, kanpoko Mauritarren lurraldeetan gurutzeko-gudan ibili zala, VIII'n Alfonso'k guda-keiñu bidez, lapurtutako Araba ta Gipuzkoa on-artu eta abar asko, Fernando lotsagabeak, II'n Julio Aita-

Santua'ren eskerniatutako (falsificada) berun-idazki(bula) bategaz eta indarkerian 1.512'an Nafarroa eta gero Euskalerrria Aita-Santua'ren baimenagaz menperatzea on-artu arte.

Bestetik: Goian esan doten lez, Kaledonia'ko Pikto Euskaldunak eta emengo Euskaldunak, Euskeraz berba ta idazten ebara. Ez gaurko Euskalerrrian bakarrik, Errioxan, Ojakastro'ko erritarrak ain zuzen XIV-XV'n gizaldirarte badakigu Euskeraz berba egiten ebela, baiña... noz arte ?. Eta XVII-XVIII'n gizaldian (Ueska'n) Aragoi'an be egiten zala.

Eta Euskerea inguru orreitan galdu bada, katolikotasunaren-aberritasunezko (nacional-catolicismo) indarkerien alegiñagaz sare orreitan lakioratuta (entrampados) Nortasuna galtzen joan ziralako dala. Bai !! Madril'eko laterriaren jaurkintzak, lurraldeetan ipinitako guda-indarrak, errietan ipinten ebazan agintariak eta bialtzen ebazan idazkarien lanakaitik, lan guzti ori apaiz-lekaide'en maltzurkerizko ekanduak biribilduta. Europa'n eta batez-be erdi-ugarte onetan sinistu ezinezko alegiñak egin dira, Bereztasunaren Demokrazizko-Askatasunean geratzen dan oiñarrizko bakarra, desagertu daiten.

Ez gaitez an aaztu Franko'ren denboran, kanpotik Euskalerrria ekarten ebazan irakasleekin eta abar.

Ainbat eramakizunezko-lana (trabajo de sufrimiento) egin dabe gure apaiz-lekaide aberkideak JAINKOA'k gai oneri bereztuta ipinitako LEGEA'ren alde. Bildur barik esango neuke: "Euragaitik orain-diño Euskeraz eta Euskaldun bizi garala".

Eta Pidal'ek ondorio-lez esaten dauana: "Asi, pues, durante los muchos siglos en que la fuerza centrífuga del localismo estuvo en su auge, pues lo exigía el desarrollo de la vida nacional, un bilingüismo constitutivo, inextricable (difícil de desenredar, muy intrincado y confuso) se extiende por todas partes".

Pidal'ek bere jakintza aundian, ez ebana iñundik-iñora ulertu, gizakia eta errigizarteak gai-lez, nai-ta guk gai-beragaz naastutasunezko zital-zirriborroak egin, beren osotasunezko gorputzetatik geikerian dagozan zibizki edo mukulluak (moleculas), ez dakigu zenbat denboran, JAINKOA'k aginduta euren egokitasunezko lekura osterabe joaten dirala, BERE'n oiñarrizko LEGEA'k alan beartzen dauzalako.

Gizon-emakume eta errigizarteetan bardin, Nortasunean bizirik badagoz, LEGE orren oiñarrria gai guztientzat bardiña dalako eta gu gaituta gagozan-lez, NORTASUNA'k daukan izatasunezko gerta-lekura joan bear gara, jaiotzaz batera, arduraz artzen diran ordezkariartzazko bete bearrak BEREZTASUNAREN ZENTZUZ bete daiguzan.

Or !! 1.683 urteetan Europa'n eta Mundu'ko erri guztietan, egun-bakoitzaren barre-negarrezko antzerkia.

Eta nai-ta gaur egunean, Mundu onetako irugarren guda nagusian buru-belarri sartuta egon, berezko giza eta gizartearen eskubideak dirala-ta, ekaitzak, luzero guztian ikusleiken mugararte susmatzen (presentir) doguz. Erromatar menperatzaille zaleak ez diralako gai, gauza edo al, lupetzezko egoera onetatik urteteko.

Emen ederto dator JESUS'en irakatsi aundi bat, BEREN eta danon AITARI esaten dautsonean: "AITA, PARKATU EGIEZU, EZ DAKIE ZER EGITEN DABEN ETA....".

Billur dira..... sasi-jainkotasunezko egokiera edo egoki-aldi ortatik urteteko ?. Ba..... onezkero jakin bear gendun: "BESTE BIDERIK EZ DAGOALA".

Pidal'ek bere lilluramenduzko illunduran, menperatzaille asmakizun au izan zan baieztu ebana eta Española'k buru gogortasun guztiagaz aurkeztan dauskuena.



Eragozpen oneik dira, EUSKALERRIKO ANAITASUNEAN aurkeztuta aztertu bear doguzenak, erria sendotu eta erriartetako laguntza lortu gura ba-dogu. Bata bestien aurka, izkilluakaz eta arrika ez gaitez ibili, ortik ez dagoelako zuzen-biderik, ez pakerik eta gitxiago EUSKALERRIA'k beren bizitzarako bear dauan OSASUNIK.

Atutxa'tar Paul

Zornotza'n 2.008'an Orrilla'ren 2'an.



Euskaldun barrientzat Zazpi erruak



Sudoku

								1	
7				3	9	6	8		
	9	6		4		5			
4			1						
	2	5				9	7		
					5				3
		4		8		7	3		
	1	2	9	7					5
	3								

2									3
			2		3				
	8	7				2	9		
7			5		8				9
8		9		6		4			5
6			7		9				1
	1	8				3	5		
			3		1				
4									6

2	6	8	9	1	4	7	3	5
5	9	7	3	2	6	2	1	8
1	3	2	2	5	4	9	6	
3	4	1	5	2	7	6	8	9
8	7	9	4	6	3	5	2	1
4	7	3	1	9	6	8	2	5
6	5	2	8	6	1	3	4	7
3	9	6	4	1	5	8	9	6
7	4	8	9	6	3	2	1	5
9	1	3	7	5	8	6	4	2

6	8	1	7	5	6	3	2	4
5	7	9	8	1	3	4	2	6
2	4	3	9	2	8	7	6	1
1	3	8	6	4	7	2	5	9
5	7	4	2	6	1	9	3	8
8	3	6	5	1	9	2	7	4
7	4	1	8	3	5	6	2	9
3	8	7	1	5	2	9	4	6
1	6	4	2	7	3	5	8	9
2	9	5	8	6	4	7	1	3

ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... 'tar
 kalean (auzoan) zenbakian
 errian, errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko diru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela,
 an daukadan zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN “ZER”. Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!

GERNIKAKO ARBOLA
DA BEDEINKATUA
EUSKALDUNEN ARTEAN
GUZTIZ MAITATUA
EMAN DA ZABAL ZAZU
MUNDUAN FRUTUA
ADORATZEN ZAITUGU
ARBOLA SANTUA

MILLA URTE INGURU DA
ESATEN DUTELA
JAINKOAN JARRI ZUELA
GERNIKAKO ARBOLA.
ZAUDE BADA ZUTIKAN
ORAIN DA DENBORA
ERORITZEN BAZERA
ARRAS GALDU GERA

EUSKERAZALEAK

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

www.euskerazaleak.biz



ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO